


Aretxabaleta,  
1992ko uztailak 16

# Aretxagazeta



## Bizi eta Elkarbizi

• *San Lorentzo jaiak*

• *Gaztetxea*

• *Amantalaz:  
Maria Jesus  
Makazaga*



Azken urteotan Aretxabaletan kirol eta kultur ekintzen antolakuntzan herriaren parte hartze eskasa kritikatu gura nuke.

"Inpersonalismoa zabalduaz doa, pasotismoak protagonismoa hartu du gure herrian"

## Ekintzetan parte hartzea...

Orain dela urte batzuk, Aretxabaleta inguruko herrien inbidia zen jendeak edozein ekintzatan parte hartzen zuelako, jendea beti gertu zegoen edozein kirol edo kultur ekintzatan aktiboki parte hartzeko, baita futbol zelaia egiteko ere.

Gaur egun gauza izan-goginateke bazkide, zaletu eta herriaren laguntzarekin futbol zelaia egiteko, Bedarretako eta gero Ibarra-ko auzoak ziren moduan?

Azken aldian herriko bizimodua aldatu egin da, batetik Aretxabaleta haunditu egin da eta bestetik inpersonalismoa za-

balduaz doa; pasotismoak protagonismoa hartu du gure herrian. Triste da, orain edozein ekintza arrerara eroateko, nahiz eta txikia izan, jendeari ordaindu egin behar zaio, eta hori benetan negargarria dela uste dut.

Horregatik, nahiz eta barita majikorik ez euki, nire ustez soluzioa Udaltik etorri daiteke. Azken aldian, Udal Batzordeak herritarrendako itxita ei daude, berorietan zinegotziek eta alderdi politikoek ordezkariek bakarrik parte hartzen dute (horrekin ez dut esan gura Udalak herritarrak deitu ez di-

tuenik, behar bada herri-tarrok ez diogu jaramonik egin). Baina Udal Batzordeetan gazteak baleude herriko zereginetan zuzenean parte hartzen; mundu horrekin, herriaren beharrek eta herriko Elkar-teen eguneroko zereginekin familiarizatu daitezten....elkarri lagunduaz eta denon laguntzaz hobeto egiten dira gauzak.


Bukatzeko esatea herri-ritarren kontzientziario oso inportantea dela; herriaren alde eta herriaren-dako lan egitea trazen-dentala da, bide horretatik helduko delako aurrerape-na Aretxabaletarendako.

**Manolo  
Zubillaga**

Argitaratzailea: Aretxagazeta  
**Aretxagazeta**


**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkartea, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxitila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkoro, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Zer daukazu esateko?



**Jesus Del Fresno**  
(Langilea)

Ea Andramaiax abuztutik kentzen dituzten. Abuztuan jende gutxi egoten gara hemen. Nik uste dut langileek eta haurrek, edo edozein pertsonak hobeto pasatuko luketela jaiak irailan edo urrian izango balira.



**Eneritz Bartolome**  
(Ikaslea)

Atxabaltan 13 urte-tik 17 urterateko gazteendako ez da ezer antolatzen. Lokal bateskatzen baduzu, askotan ez dizute ematen. Nik uste dut guretat lokal bat ipini beharko luketela.



**Iñaki Uribebarria**  
(Langilea)

Herri guztietan bezala hemen gauza asko daude. Agian, umeendako gauza gehiago antolatu beharko lirateke, kulupio gehiago ipini, parke gehiago... Kiroletan ere, uste dut gauzak hobeto antolatu daitezkeela.



**Olatz Bengoa**  
(Ikaslea)

Industrialdea leku txarrean dago kokatuta. Herri erdi-erdian dago, nik uste dut horrelako gauzak herri kanpoan egin beharko liratekeela.

## KARTAK

### Portasoleko jaiak 92

Urtero bezala, Portasoleko gazteok geure auzoko jaiak antolatu ditugu. Jai hauetan, ekin-tza ezberdin asko ospatuko dira eta hauek ondo irteteko, herriko jendearen laguntza eskatzen dugu.

Aurten bizilagunen artean jaso dugun dirua gehitu egin da, baina tabernak inoiz baino txarrago portatu dira. (Egia esanda, ez dakigu nola jarraitzen dugun jai

hauek antolatzen). Antolatzaileok ez dugu dirurik irabazten jai hauekin eta izugarriko lana egiten dugu hauek burutzeko. Gure lanaren truke, urtero, zenbait bizilagunek jartzen dituzten kexak entzun behar izaten ditugu. Ez dugu uste hainbeste-rako denik, auzo honetan ez delako urtean zehar ezer entzuten eta ezerapurtzen. Hiruegun berehala pasatzen dira

eta denok jaiak bultzatzen baditugu, kriston giroa montatuko dugu ondo pasatzeko aukera emanez.

Gutun honen bidez, gure auzoan aurkitzen diren JOSUNE GOXODENDARI eta ZIRT-ZART ileapaindegia barkamena eskatu nahi diegu, gure egitarauan izenak ez agertzeagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiogu OÑATIKO ELVIRA likorebanatzaileari

bere eskuzabaltasunagatik.

**OHARRA:** Gure egitarauan txistulari taldearen izena txarto ipini dugu. "Aretxabaletako txistulariak" jarri beharrean "Alkar" jartzen bait du.

Gure egitarauan ez da agertzen Xake txapelketa, baina hau zapa-tuan arratsaldeko lauretan izango da.

**JAI ONAK PASA**  
Potasoleko gazteak



# San Lorentzo jaiak

Aurten, urtero beazala, San Lorentzo jaiak ospatuko dira Portasolen, uztailaren 17, 18 eta 19an. Bertan ekintza ugari egingo dira, goizean goiz hasi eta gaberarte, Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkarteak antolatuta.

Jaiak 17an arratsaldeko 6,30etan hasiko dira, txupinazoarekin, eta buruhandi eta erraldoien kalejirarekin. 7,30etan poteoa izango da Tabala

laka trikitilariekin. egunari bukaera emoteko, gabeko 11etatik aurrera dantzaldia izotz taldearekin.

Hurrengo egunean, 11etan diana izango da Aretxabaletako txistulariaren eta gero poteoa Tabalaka trikitilariaren. Arratsaldeko 3retan mus txapelketa egingo da eta 4retan txikiendako jolasak Gipuzkoako plazan, horren ostean, txokolatada. 7etan buruhandiek

eta erraldoiek urtengo dute herriko txistulariaren. 11etan, Izadi taldearekin dantzaldia eta dantzaldia bukatutakoan salda egongo da denondako.

Oraindik tente aguantetan duenarendako gantzontzilo eta kulero lehiaketa ikusgarria egingo da; baita, txiste, kantu eta dantza lehiaketa ere goizalderarte.

Domekan, goizeko

10,30etan San Lorentzoren ohorez Almeneko elizan meza emango da; ordu berean, diana herriko txistulariaren. 11,30etan marrazki lehiaketa izango da Gipuzkoako plazan eta 12,30etan tortila txapelketa. Tortila txapelketan parte hartu gura duenak, tortila etxetik eroan beharko du. Sari haundiak izango dira: 1. saria 5000 pztakoa, 2. saria 3000 pztakoa eta hirugarren saria txanpan botila bat.

Eta jaiak bukaera emoteko, Traperoko del Rio antzokialdeak Eureka obra antzeztuko Gipuzkoako plazan.

Guzti horrekin, antolatzailek, aurten Portasoleko jaietara jende ugari erakartzea espero dute.

Ea jendea parte hartzerantz animetan den eta Portasoleko jaietara inguratzen den jendeak hiru egun zoragarri pasetan dituen, horretarako antolatzaileek urteroko ohiturari jarraituz txosnak ere ipiniko dituzte.



Basabe poligonoa  
A-15


Tfnoa 79 34 28

**IZOTZ  
TABERNA**

MITARTE KALEA  
Tfnoa 79 73 65



**Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria**



**ARTEGINTZA**

Lezama merkatal  
zentrua, 14



## 6. pintura lehiaketako sariak

Aretxabaletako Udal Kultura batzordeak, uztailaren 5erako marrazki lehiaketa antolatu zuen haur eta gaztetxoendako. Lehiaketa horretako parte hartzaileak goizetik gaberraino ibili ziren gure kaleetan zehar euren kudroak pintatzen.

Denera 27 lan aztertuta gero, epaimahaiak honako sariak eman zituen: 1. sa-

ria Beñoña Garizabali, 2.a Mikel Ariztegui eta 3.a Jesus Kamatxori. Lehenengo Atxabaltarra Idoia Elexpuru izan genuen, bigarrena Pauxi Bengoa eta 3.a Gurutze Mujika. Gaztetxoetan, 1go saria Xabier Ezkibelendako izan zen eta bigarrena Josune Kamatxorendako. Azkenik, 1go gaztetxoarendako saria Igor Olalde eskuratu zuen.

## Demetrio Iriarteren Rapsodia

Aretxabaletako txistulari eta konpositorea den Demetrio Iriarterek, Rapsodia musikal bat egin du, hiru fraile Karmelitei dedikatu-a; Eugenio, Jesús eta Dá-

maso Zuazua Urrutia, Aretxabaletako Egileor baserrikoiei.

Konposizio berri horri, baserriaren izen bera ipini dio: "Egileor".

## Aurten jaio diren umeak

Apirilean ataratako Aretxagazeta batean aurten 16 ume jaio direla argitaratu genuen. Ordutik hona beste 10 jaio dira.

Beraz dagoeneko 27 neska-mutiko jaio dira. Ez da bape zifra txarra, gero eta ume gutxiago dagoela jakinda.

Aretxabaletan, apiriletik hona jaiotako 10 umeetatik, 7 neska dira eta 3 mutilak. Denon curiositate asetzeko, hona hemen apiriletik orain arte gure herrian jaio diren umeen izenak:

- Zuriñe Belategui
- Andoni Galan
- Ibai Luermo
- Idoia Amallobieta
- Enara Iturbe
- Maite Carrasko
- Ohiana Alday
- Itziar aperribay
- Libe Arenaza
- Eñaut Zubizarreta.

Ea ratxa honek jarraitzen duen, eta gero eta haur gutxiago dagoela erakusten digun estadistika atzera botatzen dugun.

• Aurtengo Andra Mari kartel lehiaketaren irabazleak Ion Etxeberria eta Josu Lazkano izan dira.

• Atxabaltako udaletxean Kultura Teknikari bat behar da. Horretarako azterketa bat egingo da uztailaren 23an. Apuntatu gura duenak, uztailaren 22a baino lehen Kultur Etxera Kurrikuluna ekarri beharko du. Aurkezteko beharrezko gauzak: 18 urte baino gehiago eukitea, Atxabaltakoa izatea, Goi Batxilergoa eukitea, euskaraz jakitea. Lan postu hori 6 hilabetetarako izango da.

ARETXABALETAKO



GAZTETXEA. A. G. A

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

Akaiategi



Milarte, 16

Tfnoa. 793234

ARETXABALETA

# Badatoz Andramaixak

Andramaixak gero eta gertuago ditugu. Andramaixetako kartela aikeratuta dago eta jaien egitaraua ere bai, laster kaleratuko dute. Aretxagazeta aldizkariak, bere hurrengo zenbakian zehatzago emango du lau egun horietan dagoena. Baina aurrerapen moduan, lau egun horietako laburpen txiki bat egingo dugu, egitarauko gauza garrantzitsuenekin.

Jaiak abuztuaren 14ean hasiko dira Ikurriñaren agurrarekin eta gabeen Saltsamaltza taldearekin dantzaldia

egongo da. Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, Zumaiako banda etorriko da eta gabeen pelota partiduak egongo dira. Abuztuaren 16an, txirrindularien karrera eta herri kirolak egongo dira, arratsaldean joku herrikoiak eta gabeen trikitilariak. Azkenik, abuztuaren 17an, soka muturra egongo da goiz eta arratsaldean.

Aitatutako ekintza horiek eta askoz gehiago izango ditugu aurtengo Andramaixetan, ikusi hurrengo Aretxagazetan.



# Bota dute Arkarazoko txabola

Udalaren aginduz joan zen uztailaren 1ean Arkarazoko txabola bota zuten. Hasieran, auzokoez osatutako ipiniarren, azkenik udaletxe-ko enplegatuek, eskabadoraz, baimen barik

erakita zegoen txabola zatia bota zuten.

Arkarazoko jendea ez zen gustora geratu, baina hurrengo jaietarako txabola barria erakitzea espero dute.

## UDALETIK

# Andramaixetako presupuestuak

Aurten ere Andramaixak ospatuko dira, horren berri eukiteko, atal honetan Andramaixetan gastatuko den diru kopuruaren berri

eman gura dugu.

Horretarako, zenbaki honetan lehenengo bi egunen aurrekontuak aterako ditugu:

### Abuztuak 14

Marrazki lehiaketa.....	7.000
Toka, Txantxiku.....	7.000
Bolo txapelketa.....	10.000
Mus txapelketa.	
txapela.....	10.000
Barajak.....	9.000
Dultzaineroak.....	30.000
Buruhandiak.....	10.000
IKurriñari agurra	
Txalaparta.....	10.000
Saltsamaltza.....	80.000
Bolo txapelketa.....	40.000
Txapelak.....	9.000
Trofeoa.....	10.000

GUZTIRA: 232.000

### Abuztuak 15

Zumaiako banda	
Bazkaria.....	100.000
Lunch.....	25.000
Ekitaldia.....	300.000
Umeentzako parkea.....	141.250
Txaranga Ardoa Barrura .....	157.070
Afaría.....	20.000
Pelota partiduak.....	452.000
Musika taldea.....	226.000
Suzko Erruerak.....	508.500

GUZTIRA: 1.929.820



# Gazteendako ekintza desberdinak prestatzen

Orain dela bost bat urte herriko gazte talde batek Atxabaltan gaztete baten beharra ikusi zuen. Guardia Zibilek kuartela utzi zutenean, leku ona zela pentsatu zuten. Hasiera batean kuartela okupatu arren, azkenean, Udalarekin berba eginda gero, kuartela talde desberdinentzako banatu zen. Banaketa horretan lehe-

nengo pisu erdia euren dako geratu zen.

Bertan, lehenengo taberna dago eta hor kontzertuak egiten dira, eta gero beste gela bi eurek gura dituzten ekintzak egiteko.

*"Guk gazteendako leku bat eukitea beharrezkoa ikusten genuen, gazteen artean ekintza desberdinak egiteko. Helburu hori poliki-poli-*

*ki lortzen gabiltzala uste dugu, eta gero eta gazte gehiagok hartzen dute parte."*

## Ekintzak

Gaztetxean ekintza ugari eta inportanteak egiten dira. Orain makrame eta loragintza ikastaroak egiten dabilta. Orain arte, serigrafia, narrugintza, mimoa...

egin dira.

Horretaz aparte ekintza fijoak ere badituzte, ping-pong jokuak, kontzertuak...

Ekintza horiek helburu jakin batekin egiten dira, Atxabaltako gazte guztien artean elkartzuna bultzatzea eta ekintzen laguntza denok elkar ezagutzea.

## Aurrera Begira

Ekintza horiek eginda gero eta Gaztetea inorentzat itxita geratu ez dadin, erakusketa bat egitea pentsatu dute, bertan egiten diren ekintza guztiak herriari erakusteko. *"Horretarako diapositibak eta bertan egindako lanak ditugu."*

Orain saltsa ikastaroa egin gura dute, aurrerago hitzaldiak ere antolatuko dituzte.

Hala ere, artikulua irakurrita gero, gazteteke ekintza desberdinetan parte hartu gura duenak edo gaztetea hobeto ezagutu gura duenak, bertara joan daiteke, Otalora 27ra, lehen kuartela zegoen lekura.

NOVEDADES  
**FELI**  
MODAN DAGOEN GUZTIA!  
Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
**ARETXABAETA**

**RKLU**  
INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A  
Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

  
**OYAR**  
Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 15 70

Autoservicio  
**ANGELINES**  
  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42

**ARATZ** Elkartean antolatuta uztailean 4ean jai ederra ospatu zen Mendiolan. **BIZI-ELKARBIZI** kanpainaren bukaera ospatu zuten; baina kanpaina horrek ez luke bukaerarik euki behar. Gure herrian 15 atzeratu bizi dira; batzuk eskolan dabilta, beste batzuk lanean, beste batzuk etxean, Atxabaltako beste herritar guztiok bezala. Elkarrekin bizitzea denon artean lortu beharrekoa da eta Mendiolakoa oso pauso poia izan zen.



## Atzeratuen integrazioa, denondako aurrerapausoa

Orain dela urte batzuk, ordurarte egindakoa nahikoa ez zela ikusita, atzeratuak gizartean integretako esperientzia barriak jarri ziren martxan. Umetatik irakatsi behar zaie denok garelako gizarte honetako partaide.

Lehen, erreforma horiekin hasi aurretik, ume atzeratuak eskola berezietara errotan ziren. Bergarako eskualdeko Eskolatik inguruko ia ume atzeratu guztiak pasatu dira. Gero, 16 urte betetakoan, eskolatik urten eta tailerretan hasten ziren. Tailer horietan oinarrizkoa ikasita gero lanean hasten ziren eta euren soldatutxoak jasotzen zuten.

### Erreformak

Gaur egun eskolara joateko edadean dauden ume atzeratuak eskola normaletan integretan hasi dira, nahiz eta irakasle bereziak behar izan euren jarraipena egiteko. Aretxabaletan hiru haur ditugu egoera horretan: Iker Almen ikastolan, Alex mojetan eta Lourdes Kurzebarri eskolan.

Hala ere, horientako gero ere hutsune handia geratuko da bete barik: 16 urtetik 21 urtera bitartekoak, tailerretan lanean hasteko 21 urte euki behar dituzte eta.

Atzeratu larrienen ka-

**Gaur egun ume atzeratuak eskola normaletan integretan hasi dira, Atxabaltan hiru haur ditugu egoera horretan.**

suertarako oraindik zabalik jarraituko dute Zentru Bereziak, atxabaltar bi daude horrelako zentruetan: Imanol Ikaztegietan eta Maria Antonia Hondarribian.

Bergarako Eskola Bereziak, garai batean atzeratuekin lan inportantea egindakoa, erreforma egin zenetik ez du ikasle barririk hartzen: baina bertan jarraitzen dute erreforma egin zenean barruan zeudenak. Horrela, lau atxabaltarrek egunero Bergarara joaten jarraitzen dute.

Esperientzia barriekin jarraituaz, Gipuzkoan Gureak tailerrak sortu ziren. Probintzian sei tailer dituzte, horietako bat orain dela gutxi Arrasaten zabaldua. Bertan 1.300 atzeratu dabilta lanean eta Atzegi Elkartea da tailerron akzionistatik nagusia.

Gureak tailerrekina batera gutxitu fisikoentzako tailerrak ere badaude; Atxabaltan badaukagu horietako bat, nahiz eta oso ezaguna ez izan: Legaia tailerra.

Paulo, Jose eta Juan Carlos atxabaltarrak lanean dabilta inguruko zenbait tailerretan: Atxabaltako Legaian eta Arrasateko Gureak tailerretan.

Gure herrian denera 15 atzeratu bizi dira eta hamabost horietatik hiru euren etxeetan daude, beste denak eskoletan daude edo tailerretan lanean.

Orain dela urte batzuk ARATZ Elkartea (Aretxaba-



letako Atzeratuak) sortu zen herriko atzeratuei eta euren familiei laguntzeko asmoarekin, 15 atxabaltar horiek gure gizartean integratetako bideak zabalduaz. Orduetik hona oso ekintza politak egin dituzte.

### Mendiolako jaia

Joan zen uztailaren 4ean ARATZ Elkarteak bultzatutako BIZI-ELKAR-BIZI kanpainaren ekintzarik nagusia egin zen Mendiolan. Gipuzkoan ere egin da kanpaina bera.

Lehen aldia zen ARATZ Elkarteak horrelako ekintzak antolatzen zituen eta beldur ziren ez ete zen eurek espero bezala urtengo.

Eguraldiak ez zuen larregi lagundu: baina berritan lagundu zuena herriko gazte talde bat izan zen. Eurak arduratu ziren jokoak antolatzeaz eta Mendiolan elkartu ziren bederatzi atzeratu atxabaltarrak primeran ibili zirenen dantzan, jolasean, kantuan...

Euren familiakoek harrিতa begiraten zieten, harrিতuta eta pozik. Bederatzi haien alaitasuna kontajiatu egin zitzaizkien bertan zeuden denei.

### Protagonistak

Mendiolan elkartu ziren bederatzi atxabaltar horiek izan ziren egun hartako protagonistak.



Ekintza guztietan parte hartu zuten, ondo aprobetxatu zuten eskaini zitzaizkien aukera.

Teresa eta Mercedesek ez dute egun hura inoiz ahaztuko, sokasaltoka eta jolasean ibili zirenekoa, datorren urteko jaiaren zain egongo dira.

Paulok eta Ikerrek ikaragarri gozatu zuten futboleko jokatuaz. Eta zer esanik ez Alex, benetako traktore batean ibili zen!

Imanolek jaietako jaietako kantuak oraindik ahaztu barik dituela erakutsi zizun, denei kantatu eragin zien "Itziazarren semea" kantua.

Lourdes egun hartan Mendiolako alkatessa izan zen, 50 lagun euki zituen bere menpean. Oso ondo pasatu zuen denei aginduak ematen.

Juan Carlos, betiko moduan serio zegoen, baina jolas guztietan parte hartu zuen, ez zen atzera geratu. Gainera gai asko ezagutzen ditu eta bere eritzia ematea asko gusta-

tzen zaio.

Itziaz zen gutxien egin zezakeena; hala ere, egun hura berezia zela konturatzen zen eta berak ere protagonista izan gura zuen.

Hamabost lagunek osatutako taldea txikia dela esan daiteke 6.100 biztanle dauzkan herri batean eta behar bada anekdota hutsa litzateke horrelako taldetxo, eurek transmititzen diguten sentibiltate berezi horregatik ez balitz. Gezurra badirudi ere, mundu inpersonal honetan asko ikasi dezakegu pertsona horien gandik.

Azken urteotan Artxabaletan aurrerapauso haundiak eman dira, Mendiolan gertatutakoa ez zen kasualitatea izan, ARATZ Elkarteak herrian egindako lanaren fruitua baizik. Baina oraindik helmugara heltzeko bide luzea geratzen zaigu denoi, guri ere euren munduan integretan ikastea falta zaigu.

## Mendiolan elkartu zirenak primeran ibili zirenen dantzan, jolasean, kantuan...

# **Benito Gastañaga**

## **Atxabaltatik Kanariasera**

- **Non jaio zinen?**
- Atxabaltan.
- **Noiz joan zinen**

### **Atxabaltatik?**

• Orain 20 urte. Lehenengo zazpi urtetan Alemanian egon nintzen. Gero hemen pare bat urte eginda gero Kanarietara joan nintzen.

### **Zergatik joan zinen Kanarietara?**

• Gazte denboran abenturero samarra izan nintzen eta hemen ez nuen neure giroa bilatzen. Baina ez, Atxabaltan edo etxean zerbaiten falta nuelako, abentura behar nuelako, besterik ez.


### **Zer egiten duzu Kanarietan?**

• Orain paroan nago. Baina hotel batean lan egiten nuen, ugazabaren konfidantzazko gauzak egiten. Kobroak eta instituzio politikoekin gauzak konpontzen, hotelaren bidez.

Geldi egon beharrean, zerbait atarateko egiten dut.

### **Ze inpresio egin zizun lehenengo aldiz?**

• Oso handia zen Atxabaltarekin konparatuz, pertsonen karakterra ere direfentea da.



Etxeak ere, beste modu batera eginda daude, konstrukzio desberdina dute. Sukalde berorik ez da behar han, bertan egiten du bero, beraz beste modu bateko etxeak dira.

### **• Hasieran zer izan zen gehien kostatu zitzaizuna?**

• Nire karakterra zabalaz denez, aguro ohitu nintzen hara.

### **• Ze alde dago Kanarietako eta Aretxa-**

### **baletako jendearen artean?**

• Desberdina da. Lehen hona erdaldunak etorten zirenean, etorri dira "maketuak" esaten gauen. Niri hara joan nintzenez "Godo" deitzen zidaten eta ez nuen bape ondo ikusten.

### **• Ze alde dago zuek ezagututako Aretxabaletako eta oraingoaren artean?**

• Urtero etorten naizenez, alde txikia ikusten

dit. Baina Franko hil zetik demokraziraino gauzak asko aldatu dira, haziendari gehiago ordaintzen diogu, baina herriak aberastasun gehiago dauka.

Herria haunditu egin da, baina zatitu. Zatitu esan gura dut, guk lehen edozeinekin berba egin genuen. Gaur desgraziatxo bat daukagu Atxabaltan, hainbeste zati egindako Partidu Politikoa. Nahiz eta batzuk, H.Bkoak, E.Akoak... izan, gure artean erlazio berdinak euki beharko genituzke. Herriarrok, herriaren alde egiteko, lan berdinean elkartu beharko genuke denok, ideologia alde batera utzita. Eta orain herri honetan gorrotoa ikusten da. Lehen mutikotan, herritik "hankamotxak" bota behar bagenituen, denok elkarrekin joaten ginen.

### **• Zein da gehien harritu zaituen ohitura?**

• Han ohitura inportanteenak Karnabalak dira. Hemen Eguen Santuetan traje barria kaleratu behar zen moduan, han karnabaletako disfraz barria kaleratzen dute.

### **• Zeure burua Atxabaltartzat daukazu?**

• Nire hezurak eta haragia han egongo dira, baina neure burua eta gogorapenak Atxabaltan egongo dira.



Uztailaren 2. aste honetan, Eskalada ikastaroak egongo dira, 15 urtetik gorakoentzat. Ikastaro horiek Murruxikox emango ditu eta informazio gehiago nahi duenak Murruxikoko lokalean izango du.

## Futbol txikia uztailean nagusi

Aurten, barriro ere futbol bito txapelketa hasi da. Bertan herrikoeta kanpoko 21 talde daude apuntatu.

Partidu ederrak ikusten dira arratsaldeko 6,30etatik aurrera frontoian edo kiroletxean jokatzen diren partiduetan. Jokalariek baloia ahalik eta luzaroen kontrolatzeak eragin handia izaten du, orainarte ikusitako partiduetan parekotasun handia egon da. Gehienetan partiduak garbiak izan dira eta ez da inongo

arazorik egon, joko zikinak espektakuloa zatartu egiten du eta.

Txapelketa hasi zenetik partidu asko jokatu dira eta garbi ikusten da zeintzuk izango diren txapelketa irabazteko faboritoak.

Artikulu honetan azaltzen diren sailkapenak 5. ihardunaldikoak dira eta orain artekoa kontutan hartzen badugu, bi taldeetan indartsuen aurkitzen diren ekipoak honako hauek dira:

### A TALDEAN

CBB-23	12 puntu
Maderazo	10 puntu
Gracia libre	9 puntu
Automaticos	9 puntu

### B TALDEA

Sasoi Solomue	10 puntu
No saben	8 puntu
Batu badeu	7 puntu
Uglis	6 puntu

Asier Guenetxeak, joan zen astean, "Circulo de la Merindades" deituriko proban garaipena lortu zuen. Aurtengo bigarren garaipena lortu du txirindulari profesionaletan. Zorionak Asier.



# ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA ARETXABAETA



**E**lizak beti izan du artalde zentzua. Artalde espiritual hori bai! Gaur egun lasadura bat nabaritzen bada ere lehenengo artzainek (apaizek) esandakoa ondo bete behar izaten zen. Ez zegoen bidetik okertzerik, eta bada-

ezpada ere antolatzen zituzten horrelako ikastaro batzuk, hainbat desbideraketari argia eman eta bere senera ekartzeko.

Lehenengo emakumezkoak "Hijas de María" eta gizonezkoak "Luistarrak" izeneko tal-

detan eratzen zituzten. Baserri auzoetan baze- goen "Luisterren" talde bat eta "ejerzizio" batzuk egin ondoren inguruetako denok han bildu ziren, Aozaratzako eliza aurrekaldean, etorkizunean ere, euren fedearen islada hor gera zedin.

1954-55 urte inguruan ateratako argazkia izan daiteke honako hau.

Aipatzearen: lehen lerroan (ezkerretik hasita): D. Bonifazio Arenaza, Juanito Uribebarria (Sarbiarte), Jose Antonio Izurrategi (Intxusiaga), Jose Okaranza (Aldaixena), Domingo Arenaza (Zuatzubixkar), Fermin Madinabeitia (Josejoakina), Jose Antonio eta

Daniel Uribebarria, Rafael Errasti (Bedoñako Sakristaukoa), D. Simon Ansola (Areantzako apaiza). Bigarren lerroan: Agustin Iturbe (uxarte), Fermin Arenaza (Zelaikoa), Timotea Idigoras (Iturriotz), Jose Arenaza (Zelaikoa), Timoteo Idigoras (Iturriotz), Jose Luis Guemes (Zuatzu), Bixente Bengoa (Telleria), Jose Mari Arenaza, Francisco Uribebarria (Ardantza) Antonio Etxebarria, Celestino Okaranza (Aldaixena), Juane Madinabeitia (Josejoakina), D. Facundo Sampedro (Aozaratzako apaiza), atzekaldean (ikurriñarekin): Rikardo Bolinaga (Urtikoa).

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Otorra Jauregia)



Aurreko lehiaketaren irabazlea LORE MARTINEZ AXPE izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....
- Helbidea: .....
- Tfnoa: .....

## AMANTALAZ



Oraingo sukaldaria: Maria Jesus Makazaga

## Zerba beteak

Lau lagunentzako osagaiak:

Zerbak

Arraultzak

Uruna

York urdaiazpikoa

Olioa

Gatza

Egindako tomatea

## Zelan egin:

Zerben zati txuria, gatza botata, egosi egin behar dira bigundu arte. Gero atara hotzitu daitezen. Zerba biren artean York urdaiazpikoa sartu eta gero urunetik eta arraultzatik pasatu.

Hori eginda gero frijitu egin behar dira. Azkenik aspil batean ipini eta egindako tomatea gainera bota.

## TXISTEAK

## Erlojua konpondu

Lagun batzuk ziren herri txiki bateko tabernan bazkaltzen. Euretariako bat konturatu zen horman zegoen erlojuaz eta esaten dio etxeko-andreari:

- Zu, etxeko-andre, zer dauka erloju horrek?

- Ez dabil. Ez dakit zer emango nukeen ibiltzearren.

Lagunok elkarri keinua eginda; batek esaten du:

- Hau nire lagun hau duzu erloju konpontzailea, oso ona gainera. Oso aditua da hau horretan.

Tratua egin zuten, erlojua konpontzearen bazkaria doan izatea.

Gure "teknikuori" hor hasi zen, koilara eta tene-dorarekin, batean ikutu eta bestean ikutu, eta holaroren batean ipini zuen martxan erlojuori.

Besteok berriz, ezpanak garbitu eta bazihoazen kanpora. Eta etxeko-andrea bentanatik deika hasi zen:

- Gizonak! Zer da hau? Erlojuak isildu barik kanpaiak jo ta jo dihardu.

Eta "teknikuak" erantzun zion:

- Ez estutu andrea! Etorriko da bere onera. Atezratutakoak jotzen dihardu eta.

## KOMIKIA



## APUNTETAKO

### 17 EGUAKOTXA

- **San Lorenzo jaien hasiera**, Portasol hau-zoan. (Ikus egitarau be-rezia barruan)

### 19 DOMEKA

- Zاراia mendi tal-dearen **irteera**: Kosta aldera ibilaldi bat, hon-dartzara.

- **Zikloturisten ir-teera**: Aretxabaleta - Ar-laban - Urbina - Alegria - Gereñu. (96 Km)

- Gaztetxean, gau-ko 9retan "Z.S.D" talde Inglesaren **kontzertua** egongo da.

- San Lorenzo jaien bukaera.

### 24 EGUAKOTXA

- Zاراia mendi tal-dearen **Argazki rallya-ren Sari Banaketa**.

### 26 DOMEKA

- **Zikloturisten ir-teera**: Aretxabaleta - Udana - Ormaiztegi - Segura - Zegama - Otxaurte - Nabaja - Aretxabaleta. (110 Km)

### 30 EGUENA

- Gaztetxean gau-ko 11etan "Ataud Va-cante" Tenerifeko tal-dearen **kontzertua** egongo da.

### 18 ZAPATUA

- Gaztetxean, gau-ko 11etan "Vitusdance" Gazteizko eta "Beerth Moss" Bilboko taldeen **Kontzertua**.

### 31 EGUAKOTXA

- **San Iñazio eguna**. Muru Alde Elkartearen eguna.

## ARETXAZOKA

### Etxebizitzak

- Garaje bat salgai, Andra Mari auzunean. Tfnoa: 79 47 62

- Garaje bat salgai Otalora, 11 kalean. Tfnoa: 79 47 62

- Etxebizitza alokatu nahi dugu. Tfnoa: 77 02 42

- Alokatzeko etxebizitza bila gabilta. Tfnoa: 79 47 00

### Lana

- Esperientzidun batek ingelesko klaseak eman-go lituzke. Interesatuak deitu, 79 04 95 telefono-ra.

- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30

### Salerosketak

- Trikitixa soinua erosi nahi dut. Tfnoa: 79 12 00

- "Makario" markako egoera honean dagoen korredorezko bizikleta bat saltzen da. Oso merke. Tfnoa: 79 97 88

Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

**SEAT**

Audi VW

**GARAGE**  
**OSKAR**

Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIAK

**BASABE**  
**JATETXEA**

Menu eta afariak

Industrialdea  
**'ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE**  
" EDER "

Karrozeria  
mekanikoa

IBARRA S/N  
Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**Mobiliario**  
**ARENZA**

ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

**EROSKI**

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEAN  
Tfno: 79 16 05

**JOSTEKO**  
**OHIAL DENDA**

Uztailean beharpenak

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETA


**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66

**HIROR**  
AKEITEGIA

MITARTE, 3  
Tfnoa: 77 10 81  
**ARETXABALETA**



**ZIRT-ZART**

**ESTILISTAK**

ORDUTEGI INTENTSIBOA:  
10,30etatik 6,30etara

UDAKO ORDUTEGIA:  
10etatik 1etara

**ABUZTUAN ZABALIK**

GORBE, 2 TFNOA: 77 09 44 ARETXABALETA

## Gipuzkoa: bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**



kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián